ortzadar

Larunbata, 2013ko azaroaren 2a. 328 zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

IZAN... ALA IZAN

2013. urteko 'Hamlet' gaurkotu eta euskaratua dakar Ximun Fuchsek

-- 4-5. orrialdeak --

ITSASO GUTIERREZ

"Gure gizarteko arrasto matxistak aldatzen saiatu behar gara", dio musikariak

-- 2. orrialdea --

Beti egungoa izango den klasikoa

Shakespeare idazle ingelesaren **'Hamlet'** obraren euskal bertsioa zuzendu du Ximun Fuchsek. Klasikotasunetik atera eta 2013. urtean izan dezakeen indarra nabarmendu du zuzendariak, "antzerkia ez delako museoko obra bat"

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU



HAMLET XXI. mendean eta Euskal Herrian. *Hamlet*, gaur eta hemen. *Hamlet* antzerkien antzerkia da. Garai bakoitzak bere irakurketa behartzen du. Argiki eta arintasunez, Shakespearek munduaren eromena marrazten du. Obraren ekintza politikan oinarritzen da: gezurra, jukutria, kalkulua, konplota, diru-gosea, hitza hitz ala hitza jan. Baina erabakia ez da ekintza, eta aizu dena ez da justizia, noski... hor da auzia". Horrela dakar ikuskizunaren webgunean ezarritako sinopsiak. Eta hori guztia taularatu zuten, estreinakoz, Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain antzerki taldeek Luhuson (Lapurdi), atzo.

Hiru antzerki taldeen elkarlana ez da berria. 2010. urtean *Errautsak* antzezlana plazaratu zuten, eta baita arrakasta erdietsi ere. Baina, Ximun Fuchs zuzendariaren (Larzabale, Nafarroa Beherea, 1974) hitzetan, topaketa berri hau ez da aurretiaz lorturiko arrakastaren ondorio: "Bagenekien ez genuela egin behar *Errautsak II*; nire ustez, erronka artistiko ahula dauka gauza bera berriz egiteak, zer eta aurreko aldiren batean funtzionatu zuelako. Orduan hitz egiten hasi ginen: zer egin genezakeen, zeren inguruan... eta batek komentatu zuen: *zergatik ez egin Hamlet?*. Hasieran irriz hartu genuen proposamena, *Hamlet? Nola?*. Gero, aldiz, obra irakurtzen hasi ginen, eta heldulekua bazuela iruditu zitzaigun. Baina egokitzapen honekin ez dugu gauza berririk aurkitu, ez dugu guk asmatu, badakigu *Hamlet* obra ona dela, interesgarria eta oso indartsua, baina, horrez gainera, interesatzen zaigu ikustea obra horrek zer konta diezaiokeen gaur egungo euskaldunei". Hiru antzerki talde izan arren, honezkero energiak nahastuta dituztela azaldu du Fuchsek, eta osatzen duten lantalde hori "berez bizi da, eta ez hiru zatitan".

Egokitzapen lana, aldiz, Xabier Mendiguren Elizegik (Beasain, 1964) egin du, eta berak ere talde lanaren kontzeptua azpimarratu du. "Fuchs anaiekin eta Ander Lipusekin hasi ginen hizketan obra berri bat egitearen inguruan, eta posibilitateen artean aipatu zen *Hamlet* egitea, baina gure erara; eta ideia hori erakargarri egin zitzaigun, eta Shakespeareren jatorrizko testua irakurtzen hasi ginen: hortik zer gorde eta zer ez, zer moldatu, zer aldatu... Gauza horietaz denon artean hasi ginen hitz egiten. Beraz, ez zen izan nik etxetik itzulpena eraman eta kito, denon artean moldatutako zerbait baizik". Baina testuak elementu biziak izaten dira, eta areago, idazlearen eskutik irten ostean aktoreen eskuetara heltzen badira: "Ondoren, entseguak egiteari ekin genion, eta entseguen arabera saioetan testu baten gainean aktoreek moldaketak egiten dituzte, edo inprobisazioekin jokatzen hasten dira, eta orduan testuak autonomia handiagoa hartzen du. Beraz, jatorrizko testutik ez urruntzen saiatu gara, espiritua berbera baita, baina horrelakoetan testua autonomoago bihurtzen dela ere egia da".

Horrelakoetan hari fin baten gainean dabilen ekilibrista izan ohi da idazlea. Erortzea saihestuko dion oreka aurkitu nahi izaten du testua egokitzen duenak. "Gehiegi urrunduko ote zaren beldurra, libreegi ote zabiltzan...". Mila galdera sortzen dira. Hala ere, Mendigurenen ustez, libre da jatorrizko testutik zenbat urrundu, edo zenbat errespetatu behar den norberak erabakitzea, idazlearen zalantzak hor agertzen badira ere. "Jatorrizko *Hamlet* obraren espiritua mantendu nahi genuen, baina gure gaur egungo egoerara ekarrita".

XXI. MENDEKO HAMLET EUSKALDUNA XVII. mendeko testu bat gaur egungo ikuspegitik, gaur egungo hizkeratik, egungo estetikatik edo gure

"Nola bizi gezurrean oinarritutako gizarte batean? Zer egin injustiziaren aurrean?". Shakespearek egindako itaunak erantzunik gabe jarraitzen dute gaur egun... GUILLAUME MÉZIAT

kezka sozialetatik berreraikita. Hori da *Hamlet* euskalduna. Fuchsen arabera, Shakespearek sortu lanean badira egun ere oihartzuna duten galderak: "Nola bizi gezurrean oinarritutako gizarte batean? Zer egin behar dut injustiziaren aurrean? Ekintzara pasatu? Hori da justizia? Maitasuna bizi daiteke gezurrean oinarrituta? Zer da maitasuna? Noraino joan behar da? Gerlak ez etortzeko zer egin? Momentu batean ez badugu ezer egiten murrura goaz, eta zerbait egiten badugu ere, murrura goaz. Zeintzuk dira alternatibak? Funtsezko erronkak hor dira".

Hamlet aukeratu izanak ere baditu bere arrazoiak. Antzerkilariek ez dute *Don Kijote Mantxakoa* edo *Romeo eta Julieta* aukeratu, eta hori ez da ausazko erabakia izan. Zuzendariaren hitzetan, "*Hamlet* obrak gaztaroa aipatzen du, zein etorkizun du gaztaroak bai Hamletek bizi izan zuen egoeran, bai orain? Ni petrolio krisiaren biharamunean jaio nintzen, eta beti bizi izan naiz horrekin. Eta beranduago heldu den belaunaldia antzeko egoera batean bizi izan da: gerla ekonomikoa biziki bortitza da, injustiziaz beterikoa, eta nola egin aurre horri? Nire ustez, belaunaldi bakoitzak –eta baita Hamletek ere– badaramatza berekin arbasoek utzitako makurrak, eta belaunaldi horretakoei dagokie makur horiek konpontzea, nahiz eta, beraiek ere beste makur batzuk utzi. Era berean, *Hamlet*-en beti agertuko den galdera da ea makur horiek ez diren pisutsuegiak, eta makur zama hori ez ote den gero eta handiagoa".

Horrez gainera, obra honetan agertzen den beste kontzeptu bat gezurrarena da, Fuchsi jarraiki. Bere iritziz, bada gezurraren inguruan oinarritutako gizarte bat, obra bat, eta gezur hori hausten denean dena zapuzten da.

IRAKURKETA BESTE INTERPRETAZIO *Hamlet* testuaren inguruan hainbat eta hainbat irakurketa egin dira. Besteak beste, Hamlet komunista zela diote batzuek, judua zela bestetzuek, emakume izan zitekeela ere proposatu izan dute, eta homosexuala izan zela dioenik ere bada. Baina Fuchsek uste du obra bat muntatzea ez dela teoria bat egitea, teoria gisa planteatutako obrak "oso aspergarriak" direlako, eta horrek ez omen du zerikusirik Shakespearerekin. "Kontradikzioak beti agerian izan ditu Shakespearek, eta horretan da antzerkiaren humanitatea. Gure moldaketan gaur egungo euskaldun gazte bat da Hamlet. Bere feminitatea agertu du Hamletek? Noski. Bere oldarkortasuna agertzen da? Bai. Teoria horiek guztiek badute oinarri bat, baina guk pista bezala utzi ditugu: Shakespearek galderak pausatzen ditu, baina erantzunik eman gabe, eta horretan da bere artea".

Mendiguren ere bat dator neurri handi batean zuzendariak esandakorekin. "Ni, behintzat, ez naiz Shakespeareren obran aditu, ezin nezake azterketa filologiko bat egin, edo Shakespearek zer esan nahi zuen edo zer adierazi nahi zuen ondorioztatu. Guk hartu dugun obra oso ederra eta zabala da; ehunka gai agertzen dira: traizioa, intzestua, gerra, boterea, injustizia, mendekua... Gai asko agertzen dira, eta gai horietako gehienak mantendu egin dira gure obran, baina gure interpretazioa izan da obra gure egunetara ekartzea, 2013ra ekartzea, eta gaurko Euskal Herrian kokatzea. Neurri batean jatorrizko obrak dauzkan gaiak errespetatuta, baina libre samar jokatuz gai horien garapenarekin". Eta hori guztia erdiesteko zazpi aktorek emango diete bizia obran agertzen diren pertsonaiei: Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo izango dira *Hamlet* interpretatuko dutenak.

Ximun Fuchs zuzendariak gauza bat espero du guztiaren gainetik, ikusleak hurbiltasun bat izatea obrarekiko, eta ez pentsatzea antzerkia Shakespearek idatzi duela, ez pentsatzea Hamlet ingelesa dela, edo Danimarkako printzea dela, baizik eta kanpoan aurkituko duen lagun bat, anaia bat... eta horien egunerokotasunean pausatuko lituzkeen galderak pausatuko dituela obrak molde interesgarri batean. "Eta, espero dut, ikusleak plazer hartuko duela maila horretan". Ilusioa eta lana jarrita daude honezkero, beraz, esateko gutxi edukiko du zorteak, eta berriz ere arrakastaren sabaia jotzeko aukerarekin abiatuko dira herririk herri klasiko bati egungo begiekin begiratuta.

AGENDA 2013

> AZAROA

2 Azpeitia
3 Bilbo
7, 8, 9, 10 Donostia
11 Larresoro
14 Hendaia
15 Hazparne
16 Leioa
17 Durango
22 Zornotza
23 Berriz
24 Atarrabia
29 Zumaia
30 Gernika

> ABENDUA

1 Orereta

Burezurra, mailua, igitaia...

Iragan astean zendu den Lontxo Yriartek egina da antzezlana aurkezten duen kartela; artelan bat beste artelan baten barruan. Le Petit Théâtre de Pain antzerki taldeko kide, antzerkilari eta musikari zen, besteak beste, Lontxo. Ximun Fuchs zuzendariak aitortu du beraientzat kolpe gogorra izan dela haren heriotza, eta gaineratu du kartelak pista asko eta nahasmendurako aukera nahikoa ematen duten gakoak eskaintzen dituela.